

Txetxenia Gerra Kaukason

LURRALDEAREN HEREN BAT KONTROLPEAN DUELA ETA OSOA ESKURATU NAHI DUELA IRAGARRI DU MOSKUK

Txetxeniak gerra egoera deklaratu du errusiarren aurka armada erabiltzeko

■ Errusiarren aurkako borroketan gerrillariak eta zibil armatuak aritu dira txetxeniarren aldetik, baina ez soldaduak

■ Terek ibaia arteko lur lauak menpean izan arren, Putinek iragarri du «terroristak akabatu arte» borrokatuko direla

■ Lehen aldiz, Errusiako lehen ministroak aitortu du azken asmoa dela lurralde matxinatua berreskuratzea

Erredakzioa / Donostia

GERRA egoera deklaratu zuen atzo arratsaldean Aslan Maskhadov Txetxeniako presidenteak, eta errusiarren aurka armak hartzeko eskatu zien bere herritarrei. Duela hamar egunetik Txetxenia gerra zegoela garbi egon arren, deklarazio horrek ekarriko du Txetxeniako Armada borrokan sartzea. Izan ere, orain arte errepublika independentista horretako iparraldean Errusiako tropei aurre egin dietenak ez ziren soldaduak, Gobernuak kontrolatzen ez dituen gerrillariak eta zibil armatuak baizik. Legebiltzarrak gaur eztabaidatu beharko luke gerra deklaratzeko duen ala ez.

Txetxeniako Armadak 10.000 lagun inguru ditu eta beste hainbat lirateke errepublikan zehar barreiatuta dauden gerrillariak. Errusiako Armadak 34.000 soldadu bidali ditu.

Maskhadovek azken ueña arte itxaron du gerrarako deia egiteko, gatazka era bake-tsuan konpontzeko itxaropena baitzuen. Groznin bildutako kazetariei, Maskhadovek esan zien ordu erdiko elkarriketa bat izango balu Boris Jeltsin Errusiako presidentearekin gerra bukatuko litzatekeela. Moskuko Gobernuak, oster, ez dio legitimitaterik onartzen Maskhadovi beraiekin negoziatzeko, eta beraien aldekoen gobernu bat osatu nahian dabil. Maskhadovek irabazi zituen 1997an lehendakaritzako hauteskundeak Txetxenia.

Heren bat errusiarren kontrolpean

Vladimir Putin Errusiako lehen ministroak berak iragarri zuen atzo Armadako unitateak Terek ibaiaren ertzerat iritsi direla eta, hortaz, Txetxeniaren herena dagoeneko bere kontrolpean daukatela.



SERGEI SNOPOV / EPA

Iheslari txetxeniarrak, Inguxetiarako bidean.

Terek ibai horrek alde alde zeharkatzen du Txetxenia, eta Errusiako Armadaren lehendabizirik helburua zen bertaratzea. Horretarako, haatik, gogor borrokatu behar izan ziren txetxeniarrak gudariaren aurka, Xerxvlionnaia hiriretan inguruan. Eskualde horretan egon dira, hain zuzen, astelehenaz geroztik guduak bortitzenak. RIA berri agentziak Groznitik jakin zuenez, Terek ibaira heltzeaz gain, armadak lortu zuen haren gaineko zubi baten kontrola hartzea.

Datozen orduetan, armada federalaren erasoaldia ingurune horretan gelditzen bada, argi izango da Moskuren helburu nagusia zela Xelkovskaia eta Naursakaiako distrituak bere mendean hartzea, seguritate eremu bat osatzeko. Haatik, Putinek telebistan aditzera eman zuenez atzo, «seguritate hesi baten eratzea ez da oraingoz bukatu, ezta gutxiago ere; azkenengo hel-

burua da terroristekin erabat akabatzea eta euren baseak Txetxenia osoan suntsitzea».

«Lurralde matxinatua» berreskuratzea

Hala ere, atzo arratsaldean Putinek lehen aldiz adierazi zuen bere helburua zela «matxinatutako lurraldea Errusiaren botere konstituzionalaren menpe berriro jartzea». Beste hitz batzuetan esanda, Txetxenia independentearekin amaitzea. Lehen ministroak zehaztu zuenez, «Errusiako herritarrak babesteko dihardugu, bakean eta seguritatean bizitzea merezi baitute; hala, bakea arriskuan jarria bada, gogor eta azkar behar dugu ekin».

Anartean, Errusiako armadari buru egin dioten txetxeniarrak galerak jasanarazi dizkiote, nahiz eta Putinek 4 hil eta 22 zauritaren balantze bat baino ez zuen iragarri azken 24 orduetako.

Gerra Kaukason



J. Aranzada

Mosku, iheslariak bereganatu nahian

■ TXETXENIAKO iparraldea bere kontrolpean hartuta, herri horren bitan zatitze-ko estrategia bultzatzeko aukera izango luke Moskuk. «Txetxeniako biztanleak gaizkileez nazkatuta daude; ez dute nahi terroristak euren artean egon daitezen eta horretan laguntza emango diegu», erran zuen atzo Vladimir Putin Errusiako lehen ministroak. Bezperan, hain zuzen, bonbardaketen ondorioz eta armada federa-

laren erasoagatik Txetxeniatik ihes egin duten errefuxiatuentzako batzorde baten sorrera iragarri zuen. Putinek hitz eman zuen, halaber, aginte zibil eta militarrek bereraturiko direla eta erabilgai ezarriko eskolak eta ospitaleak. Azkenik, soldada eta erretiro sariak ordainduko ditu Moskuk. Agintza hauekin, Putinek espero du 118.110 errefuxiatuak bere menpeko Txetxeniara itzultzea.



РУССКАЯ ФЕДЕРАЦИЯ
Г И Е Н В С

Kultur S i k ruz
I un ut k unk r